

### **KANALAK:**

Behar dugun materiala eskuratzeko komenigarriak izango zaizkigun enprekin aliantza batzuk izan behar ditugu :

Alde batetik, material infragorria eskuratzeko, erradiazio infragorriarekin lan egiten duten enprekin harremana lortu beharra dago.

Bestetik, betaurrekoei dagokionez, kristala eta beraien montura lortzeko enpresa batekin akordio batera iritsiko gara. Akordio batera iristeko orduan, enpresak autosufizienteak izan behar direla kontuan edukiko dugu. Kontaktuan egongo garen enpresak, gehienbat optikak izango dira.

Komunikazioa berriz, interneten bitartez web orri bat irekiz, iragarkiak (telebistan, irratan, egunkarian) edo propagandako orriak eginez lortuko dugu. Kanal hauek erabiliko ditugu interesatuta dauden profesionalen informazioa ahal den eta hobekien iristeko. Gehien bat web orriaren bidez gure produktuak saldu eta ospitaletan bisitadore (komertzial) moduan gure produktuak salduko ditugu. Promozioa ere enpresaren bazkideak (gu) egingo dugu, Horrelako ekoizpena duten enpresekiko.

Gobernuari eta osasun arloan dauden diru laguntzak eskatu eta aprobetxatuko ditugu. Bankuei kredituak eskatu eta haiek gure eskaera baimentzea.